

## PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ OBRAK KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO- BALDINTZA BEREZIEN ORRIA

### I. KONTRATUAREN EDUKIA

#### 1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea “Donostialdean (Gipuzkoa) San Markoko zabortejiaren II. fasea itxi eta berreskuratzeko proiektuaren” barruan, Ila azpifaseari dagozkion obrak kontratatzea izango da, 2009ko abenduaren 30ean GEYSER HPC, SAU enpresak idatzitako proiektuan definitzen den moduan eta “Ingurumen Sailburuordetzaren 2012ko uztailaren 31ko Ebazpenak, SAN MARKOKO MANKOMUNITATEAK sustatu ondoren, Astigarraga, Donostia eta Errenteriako (Gipuzkoa) udalerrietan hondakin ez-arriskutsuetarako zabortejia zigitatu, mantendu eta ixte ondorengo kontrolatzeko ingurumen-baimen integratua (IBI) ematen duenak” aipatutako ekarpenak kontuan hartuta. Horiek kontratuaren barruan sartuko dira ere bai.

Lanak aipatu proiektuaren arabera egingo dira, baina IBiren Ebazpenean dauden eskakizunetara (bereziki, D.1.8 eta D3 atalen edukira) moldatu beharko da. Dokumentu horiek guztiak kontratuaren barruan sartuko dira, baita administrazio-baldintza berezien orri hau ere eta adostasunaren lekuko esleipendunak sinatu beharko ditu kontratua legezatzeko egintzan.

Kontratazio hau erregulazio harmonizatuaren araberako obra-kontratua izango da eta Sektore Publikoaren Kontratuari buruzko Legearen Testu Bateratuak 229. artikuluan eta hurrengoetan arautzen du.

CPV O8 kodea: 45112330-7 Lursailak berreskuratzeko lanak  
NACE Rev.1: Eraikuntza F sekzioa 45 dibisioa, 45.1 taldea, 45.11 klasea

#### 2. GAUZATZE-EPEA

Murritzeta proposatzen duten hautabidezko proposamenak alde batera utzi gabe, kontratazio honen xede diren obrak gauzatzeko gehieneko epea **HAMAR (10) HILABETE ETA BI (2) ASTEKOA** izango da. Zuinketaren egiaztapen-akta sinatu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da zenbatzen (SPKLTBren 229. artikulua). Epe hori igarotzen denean, esleipendunak atzerapena izango du eta Mankomunitateak ez du aldeztu aurretik ohartarazteko beharrik.

Obrak Orri honetan finkatutako epeetan eta, nolahi ere, lanen programan, kontratistaren proposamenean, hobetutakoetan hasi eta gauzatu beharko dira.

Proposamen abantailatsuenaren alde esleipena egiten den ebazpenean, Administrazioak idatziz utziko ditu hautatutako eskaintzari dagozkion kontratuaren epeak, azken epea eta partzialak barne.

Gauzatzeko gehieneko epe partzialak kontratistak aurkeztutako lanen programa onartzean zehaztutakoak izango dira.

Kontratuaren epea bakarrik luzatu ahal izango da indarreko legerian eskatutako gorabeherak eta baldintzak ematen direnean.

1627/1997 EDk, urriaren 24koak, 14. artikuluan xedatutakoaren babesean, Segurtasun- eta osasun-arloan koordinatzaileak edo zuzendaritza eskudunaren kideak erabakita ala 31/1995 Legearen artikuluekin bat Lan eta Gizarte Ikuskaritzak erabakita, obrak kontratistak segurtasun- eta osasun-neurriak betetzen ez

dituelako oso-osorik edo lan-zati batzuetan gelditzen badira, obraren edo lan-zatiaren etenaldia gauzatze-eperako zenbatzen jarraituko da eta kontratua ebazteko arrazoia izan daiteke, 3/2011 Errege Dekretu Legegileak, azaroaren 14koak, Sektore Publikoaren Kontratuari buruzko Legearen Testu Bateratuak (SPKLTB) 212., 213. eta 237. artikuluetan xedatutakoarekin bat.

### **3. KONTRATUAREN AURREKONTUA**

Lizitazioaren oinarriko prezioa BOST MILIOI LAUREHUN ETA HOGEITA HAMALAU MILA EHUN ETA HAMAHIRU EURO ETA HAMABOST ZENTIMOKOA (5.434.113,15 €) da eta MILIOI BAT EHUN ETA BERROGEITA BAT MILA EHUN ETA HIRUROGEITA HIRU EURO ETA HIRUROGEITA HAMASEI ZENTIMO (1.141.163,76 €) erantsi beharko zaizkio BEZ kontzeptupean (% 21), beraz, guztira SEI MILIOI BOSTEHUN ETA HIRUROGEITA HAMABOST MILA BERREHUN ETA HIRUROGEITA HAMASEI EURO ETA LAUROGEITA HAMAIKA zentimo (6.575.276,91 €) (BEZ barne) izango dira.

Eskaintzak guztiek bereizita adieraziko dute kontratuaren prezio garbiari (BEZ gabe) dagokion zenbatekoa eta, hala badagokio, BEZri dagokiona. Formulazten diren eskaintza ekonomikoen zenbateko garbiak (BEZrik gabe) ezingo du kontratuaren lizitazioari dagokion oinarriko aurrekontua gainditu.

Kontratuaren prezioa eta obra egiten ari den bitartean indarreko prezio unitarioak hautatutako proposamena onartu ondorengoak izango dira eta balio erantsiaren gaineko zerga eta beste edozein zerga aplikagarri sartua izango dute. Halaber, orri honetan aurrez ikusitako eginbeharrak betetzeko esleipendunari sortzen zaizkion gastu guztiak ere kontuan hartuko dira. Bai orri honetan, baita kontratuari aplikagarriak zaizkion gainerako xedapenetan ere jasotzen diren betebeharrak guztien ondorioz esleipendunari sortutako gastuak lizitazioaren xede den proiektuan gauzatzeko zuzeneko eta zeharkako kostuen artean agertzen ez badira, egituraren gastu orokorren ehunekoan sartuzat joko dira.

### **4. FINANTZAZIOA**

Kontratuaren prezioa ordaintzeko, 1 0000.620.442.01.02 2013 aurtengo aurrekontuen kargura finantzazioa aurrez ikusia dago. Era berean, aurrekontuen arloan organo eskudunak etorkizuneko ekitaldietako aurrekontuetan kreditu egokiak gordetzeko konpromisoa hartzen du.

Espedientean ordaintzeko agindua eta ekarpenen eskuragarritasun osoa daude.

### **5. ORDAINTZE-MODUA**

Hitzartutako prezioen arabera, esleipendunak kontratuari jarraiki egiaz gauzatzeko lanengatik edo, hala baleude, aldaketengatik dirua jasotzeko eskubidea izango du.

Gauzatzeko lanen zenbatekoa hilero ziurtagirien bitartez egiaztatuko da. Horiek obren zuzendaritza eskudunak egingo ditu eta obren esleipendunak idatzitako zerrenda baloratua (hitzartutako prezio unitarioak) oinarritzat hartuko da.

Egindako ziurtagirien ondoriozko ordainketak kontu onerako ordainketak izango dira eta azken neurketan egindako zuzenketa eta aldaketen mendekoak dira, obrak onartu edo hartzen direla inolaz suposatuta gabe.

Fakturaren zenbatekoaren gainean, Mankomunitateak kenketak egin ahal izango ditu, esleitutako zerbitzuak ez eskaintzeagatik edo oso-osorik ez egiteagatik, baita dagozkion zigorrenagatik ere.

Administrazioak prezioak data bakoitzari dagozkion indarreko epeen barruan ordaindu beharko ditu, 3/2004 Legea, abenduaren 29koa, merkataritza-eragiketetan ez ordaintzearen kontra borrokatzeko neurriak xedatzen dituen, aldatzeko 15/2010 Legearen arabera. Nolanahi ere, erreferentziatutako laguntza-ziurtagirien egite-data edo kontratua erabat edo zati batean burutu dela adierazten duten dokumentuena hartuko da, alde batera utzi gabe SPKLTBk 222.4. artikuluan xedatutako epe berezia.

Kontratistak lanak obrak gauzatzeko kontratuaren epea edo epeak baino azkarrago egin ditzake, obra-zuzendaritzaren iritziz bidezkotzat jotzen ez denean izan ezik. Hala eta guztiz ere, esleipendunak urte

bakoitzean dagokion urtean izendatutako zenbatekoa baino gehiago jasotzeko ez du eskubiderik izango eta berdin dio gauzatutakoaren edo ziurtagirien zenbatekoak.

Administrazioak onartutako urteko zenbatekoak doitzeko ahalmena du, obren egiazko erritmora moldatzeko, HAKLAOk 96. artikuluan xedatutakoarekin bat.

Gauzatutako obren zenbatekoa, ziurtagiriak edo Administrazioak onartu eta baieztatutako lan-programan agertutakoa izanik, kontratistak urte bakoitzean urterako izendatutakoa baino zenbateko handiagoa jasotzeko ez du eskubiderik izango.

## 6. PREZIOAK BERRAZTERTZEA

Kontratu honetan ez dira prezioak berraztertuko espedientean egiaztatzen den bezala.

## 7. BERMEAK

Behin-behinekoa: Ez da eskatzen.

Behin betiko bermea

Kontratuaren esleipendunak, hartutako eginbeharrak betetzen direla bermatzeko, San Markoko Mankomunitatearen alde behin betiko bermea osatu beharko du eta esleipen-zenbatekoaren % 10 izango da, BEZ kanpo, SPKLTBk 95.2. artikuluan xedatutakoarekin bat.

Behin betiko bermeak SPKLTBk 100. artikuluan aipatutako kontzeptuei erantzungo die.

Bermea osatzeko epea 10 lanegunekoa izango da, 21. klausulan aipatutako eskea jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratuak 96. artikuluan zehaztutako edozein bitarteko erabiliz osatu ahal izango da. Osatuta dagoela egiaztatzeko, bitarteko elektronikoak, informatikoak edo telematikoak erabil daitezke. Berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik baldintza hori betetzen ez bada, Administrazioak ez du bere aldeko esleipena egingo eta SPKLTBk 151.2. artikuluko azkeneko paragrafoan xedatutakoa aplikagarria izango da.

Esleipendunari eska dakizkiokeen zigorrak edo kalte-ordainak bermearekin ordainduz gero, berriz jarri edo zabaldu beharko du dagokion zenbatekoan eta gauzatzen den unetik hamabost eguneko epean. Bestela, ebazteko arrazoia izango da.

Kontratua aldatzearen ondorioz prezioa aldatzen bada, bermea doitu egin beharko da, prezio berriarekin proportzioa izateko. Hori hamabost eguneko epean egin beharko da, aldaketaren erabakia enpresaburuari jakinarazten zaion unetik.

SPKLTBk 102. artikuluan xedatutakoaren arabera itzuliko da, berme-epea amaitzen denean eta esleipendunak legezko eginbeharrak betetzen dituenean.

## 8. KONTRATUA GAUZATZEA

Kontratua gauzatzeko honako baldintza bereziak eskatuko dira:

- Derrigorrez geosintetikoaren instalazioa aurkeztutako proposamenean azaltzen den enpresari azpikontratatuak zaio
- Iragazgaizpen-paketea osatzen duten materialak aurkeztutako proposamenean adierazitakoekin berdinak izango dira

Baldintza horiek derrigorrez kontratuak sartuko dira, beraz, SPKLTBk 118.2. artikuluan aurrez ikusitakoaren babesean, ez badira betetzen kontratua ebatz daiteke 223 f) artikulua xedatzen duenerako.

Obra-kontratua zuinetaren egiaztapen-akta sinatzen den unetik hasiko da zenbatzen eta hori kontratuaren legeztapenarekin bat etorriko da.

Enpresa esleipendunak San Markoko Mankomunitateari proiektututako obrak aurrez ikusitako kontratu-epetan gauzatu eta entregatu beharko dizkio.

Iragazgaizpen-lanetan indarreko obra-planean (kontratistak proposatutakoa eta zuzendari eskudunak nahiz Mankomunitateak onartutakoa) finkatutako epeak gainditzearen ondorioz geosintetikoak instalatzeko orduan kalitatea kontrolatu eta bermatzeko zerbitzuen kontratu-esleipendunak sartu behar dituen egun horiek gehiago Mankomunitateak ordaindu beharko dizkio eta kontratistak gaindizko kostu hori bere gain hartu beharko du.

Obra-zuzendaritza eskudunak eskatuta ostean, materialen eta obra-unitateen saiakuntza eta egiaztapena egin behar bada, gastuak kontratistaren kontura izango dira.

Kontratistak obrak gauzatzeaz gain, horiek hartu arte kontserbatu beharko ditu.

Kontratua kontratistaren arrisku eta zorira gauzatuko da eta obretan izandako galera, matxura edo kalteengatik kalte-ordaina jasotzeko eskubiderik ez du izango, SPKLTBk 231. artikuluan aurrez ikusitako ezinbesteko kasuetan izan ezik.

Nolanahi ere, obrak orri honetan dauden klausulei, honekin batera azaltzen diren zehaztapen teknikoei eta 3/2011 Errege Dekretuak, azaroaren 14koak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratua onartzen duenak, eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrak, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onartutakoak, xedatutakoari zorrozki erreparatuz egingo dira. Bereziki, kontratua administrazioaren zuzendaritza, ikuskaritza eta kontrolpean burutuko da eta ahalmen horiek idatziz nahiz ahoz gauzatuko ditu. Ez obren zuzendaritza eskudunak, ezta kontratistak ere, kontratatutako obretan ezingo dute aldaketarik sartu edo gauzatu San Markoko Mankomunitateak behar bezala onartu gabe.

Kontratista esleipenduna obrak behar bezala amaitu arte proiektuan aurrez ikusitako konponbideak zuzen garatu eta gauzatuz arduradun izango da.

Enpresa kontratistak garatutako lanen eta egindako prestazio nahiz zerbitzuen kalitate teknikoaren ardura izango du. Halaber, bere erantzukizuna da kontratua gauzatzen ari den bitartean San Markoko Mankomunitateak edo hirugarrenek ez-egiteengatik, akatsengatik, metodo desegokiak erabiltzeagatik edo ondorio okerrak ateratzeagatik izan ditzaketen ondorioak.

Kontratistari edo bere mendeko pertsoneri egotz dakizkiekeen ekintzengatik edo ez-egiteengatik kontratuaren martxa egokia arriskuan jartzen denean, Administrazioak behar bezala gauzatzeko edo garapen egokia berreskuratzeko egokitzat jotzen dituen neurriak hartzea eska dezake.

Enpresa kontratistak kontratuaren emaitza ezin hobeki erabil dadin beharrezko informazio osagarria eta laguntza teknikoa (dokumentuak eta informazio-mota guztia) eskaintzeko konpromisoa hartzen du.

Enpresa kontratistaren erantzukizuna da kontratua eta ezbeharren arriskuak behar bezala aplikatzea, bai materialari, bai langileei eta hirugarrenei dagokienez, lanak egiten ari diren bitartean.

Enpresa kontratistak, publikoak edo nabarmenak ez badira, kontratuaren xedearekin zerikusia duten datuak eta aurrekariak, hori garatzeko ezagutu beharrekoak, isilpean mantendu beharko ditu, bai kontratuaren indarraldian, baita amaitu ostean ere.

## **9. KONTRATISTAREN LAN-BETEBEHARRAK**

Kontratistak lanaren, gizarte-segurantzaren eta lanean segurtasun nahiz higiearen arloan dauden indarreko lege-xedapenak bete beharko ditu, kontratuaren helburu diren lanetan erabiltzen dituen

langileei buruz. Hala, ez-betetzeak izan ditzakeen erantzukizunez Administrazioa salbuetsia dago. Bereziki, Gipuzkoako Eraikuntza eta Herrilanen Hitzarmen Kolektiboaren (2007-08-31ko GAO) edo ondoren berraztertzen diren hitzarmen kolektiboen lan-baldintzak aplikatu beharko ditu.

## **10. KONTRATUA GAUZATZEN ARI DEN BITARTEAN HIRUGARRENEI SORTUTAKO KALTEENGATIK KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA.**

Lanak garatzen ari diren bitartean, bere kargura dituen langileen ekintzengatik, ez-egiteengatik edo axolagabekeriengatik ala obren antolaketa, babes eta seinaleztapen urriarengatik kontratista edozein pertsona, jabetza edo zerbitzu publiko edo pribaturi eragindako kalte-galeren arduraduna izango da.

## **11. KONTRATUAREN ALDAKETAK**

Interes publikoaren arrazoiak direla-eta Administrazioak kontratua alda dezake, SPKLTBk 107. artikuluan aurrez ikusitako gorabeheraren bat ematen denean eta betiere horrekin lizitazioaren eta esleipenaren oinarriko baldintzak aldatzen ez direnean.

Arestian aipatu diren aldaketak kontratistarentzat derrigorrezkoak izango dira.

Aipatu Legearen 234.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratua aldatzearen ondorioz alde zuzenik ez zeuden obra-unitate berriak sartu behar direnean, aldaketen prezioak Administrazioak finkatuko ditu eta kontratistak onartzen ez baditu, kontratazio-organoak beste enpresaburu batekin kontrata ditzake finkatutako prezio berdinetan edo, bestela, zuzenean egin.

## **12. OBRAK HARTZEA ETA BERME-EPEA**

Obrak behin-behineko hartzeko, kontratistak obrek nahasitako zonak garbitu beharko ditu, seinaleztapen eta obra-hondarrik gabe utziz eta asaldatuak izanez gero, hasierako egoerara lehengoratu dira.

Obrak amaitzen diren unetik gehienez hilabeteko (1) epean hartu eta adostasuna azaltzeko egintza formala eta positiboa egingo da eta horri buruzko akta idatziko da.

Era berean, lege hartzeko den unetik **URTEBETEKO** epea zehazten da SPKLTBk aurrez ikusitakoetarako berme bezala. Epe horretan obrak kontratistaren kontura kontserbatuko dira eta kontzeptu horrengatik kalte-ordaina edo ordainketa jasotzeko ez du eskubiderik izango.

Kontserbazioa ez badu zaindu eta obra arriskuan jartzen bada, Administrazioak kontratistaren kargura kalteak saihesteko lanak egingo ditu.

Berme-epea amaitu eta obrak behin betiko hartu ondoren, kontratua betetzat joko da eta berme bezala osatutako fidantza itzultzeari ekingo zaio.

Horretarako, berme-epea bete baino hamabost egun lehenago, obren zuzendari eskudunak, ofizios edo kontratistak eskatuta, obren egoerari buruzko txostena idatziko du. Hori aldekoa balitz, kontratistak jada ez du erantzukizunik izango, SPKLTBk 236. artikuluan aurrez ikusitakoetan izan ezik. Orduan, berme bezala osatutako fidantza itzuli edo kitatzeari, kontratua likidatzeari eta, hala badagokio, ordaintzeke dagoena ordaintzeari ekingo zaio.

Txostena aldekoa ez bada eta akatsak obra gauzatzeko orduan egindako hutsengatik badira eta ez berme-epean eraikitakoaren erabileraren ondorioz, zuzendari eskudunak kontratistari argibide egokiak emango dizkio, eraikitakoa behar bezala konpontzeko. Horretarako, epe bat emango dio eta denboraldi horretan kontserbatzen jarraituko du, berme-epea zabaltzeagatik zenbatekoa jasotzeko eskubiderik izan gabe.

Hala eta guztiz ere, kontratistak kontratua bete ez duelako obra eraikuntzan dauden ezkutuzko akatsengatik berme-epea bukatutakoan aurre-egoeran sartzen bada, hartzen den unetik zenbatzen

hasita hamabost (15) urtez kalte-galerengatik erantzun beharko du. Kalte-galerarik gabe epe hori igarotzen denean, kontratistaren erantzukizuna erabat iraungiko da.

### **13. EZ-BETETZEAGATIK KONTRATISTARI JARRITAKO ZIGORRAK**

#### **A.KONTRATUAREN GAUZATZE-EPEAK EZ BETETZEA**

Kontratistak, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratuaren gauzatze-epea (guztizkoa eta partzialak) betetzearekiko atzerapena izaten badu, Administrazioak ebaztea, bermea galaraztea edo zigorrak jartzea erabaki dezake. Azkeneko kasuan, zigorraren proportzioa kontratuaren prezioaren 1.000 euroko egunero 0,20 eurokoa izango da.

Atzerapenarengatik zigorrak kontratuaren prezioaren 100eko 5eko multiplora iristen direnean, kontratazio-organoak ebazteko edo zigor berriak jartzen jarraitzeko ahalmena izango du.

#### **B.PRESTAZIOAK ZATI BATEAN EZ BETETZEA**

Kontratistak, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratuan definitutako prestazioak zati batean betetzen ez baditu, Administrazioak ebaztea edo kontratuaren prezio guztiaren 100eko 10eko zigorra jartzea erabaki dezake.

#### **C.AKATSEZ BETETZEA**

Prestazioa akatsez betetzen bada, Administrazioak kontratuaren aurrekontuaren % 10eko zigorra jar dezake.

#### **D.KAUDIMENAREN ETA PROPOSAMEN TEKNIKOAREN KONPROMISOAK EZ BETETZEA**

Kontratistak eskaintzan aipatzen dituen bitarteko materialak eta giza baliabideak edo beste edozein alderdi atxikitzen ez baditu, 20. klausulan xedatutakoaren babesean, Administrazioak kontratuaren aurrekontuaren % 10eko zigorra jar dezake.

Atzerapenarengatik zigorrak kontratuaren prezioaren 100eko 5eko multiplora iristen direnean, kontratazio-organoak ebazteko edo zigor berriak jartzen jarraitzeko ahalmena izango du.

### **14. KONTRATUA EBAZTEKO ARRAZIOAK**

Zerbitzu-kontratua ebazteko arrazoiak dira Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratuak 223. eta 237. artikuluetan xedatutakoak.

### **15. ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK**

Administrazioari honako eskumenak dagozkie: kontratua interpretatzea, betetzeko orduan sortzen diren zalantzak argitzea, interes publikoa dela-eta aldatzea, ebazpena erabakitzea eta horren ondorioak zehaztea, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratuak eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrek xedatutako mugen barruan eta berak zehaztutako baldintza eta ondorioen arabera.

## II.- KONTRATATZEKO PROZEDURA

### 16. ESLEIPEN-PROZEDURA

Kontratu hau prozedura irekiaren bitartez esleituko da.

Eskaintzak baloratzeko irizpideak, kontratua esleitzeko oinarrizkoak izango direnak, eta horien haztapena honakoa da:

- **1. irizpidea, automatikoki ezin daitekeena ebalua:** Proposamen teknikoaren edukia. **0 eta 50 punturen artean** haztatuko da.
- **2. irizpidea, automatikoki ebalua daitekeena:** Proposamen ekonomikoa. **0 eta 50 punturen artean** haztatuko da.

Aipatu **irizpideetatik, iritziaren arabera** automatikoki ebalua daitekeena baino lehenago baloratuko da. Hain zuzen ere, proposamen teknikoa (1. irizpidea) balioetsiko da.

Irizpide honetan lanak garatzeko eskaintzaileek aurkeztu duten proposamen teknikoaren edukia aztertu ostean atera daitezkeen ondorioak kontuan hartuko dira eta gehieneko puntuazioa (**50 puntu**) lanak behar bezala gauzatzen direla ongien ziurtatzen duen proposamenak lortuko du.

Beste fasera bakarrik 1. irizpidearen arabera ebaluazioan gutxienez 30 puntuko atalasea gainditzen duten proposamen teknikoak pasako dira.

Horregatik, oso garrantzitsua da dokumentuen bidez eta arrazionaltasunez honakoak zehaztea:

- 1) **Obraren ikerlana. Lanen programa. Otik 15 puntura** bitartean haztatuko da.  
Obra gauzatzeko ikerlanean oinarrituta eta eskaintzan eskainitako giza baliabideekin eta bitarteko materialekin bat, lan-programak dokumentuz eta arrazionaltasunez zehaztuko ditu jardueren sekuentzia eta epe desberdinak.

Diagramak eta grafikoek espazioan eta denboran eraikuntza-prozesuaren antolaketa eta koordinazioa ikusteko aukera emango dute. Gainera, hileko inbertsioak eta metatuak ondorioztatu ahal izango dira.

Lanen programari obraren eskura jarritako gizataldearen, makineriaren eta instalazioen zerrenda erantsiko zaio, hurrengo puntuetan adierazten den modura.

Obra-zati desberdinak egiteko orduan antolaketaren ikerketa zehatza izango du, egun zabortegean eta inguruko zonetan garatzen ari diren jarduerengan eragina ahalik eta txikiena izateko. Zehazki aipatuko da aurrez ikusitako obra-seinaleztapena, bai obra-zonan, bai inguruetan eta nahasiak dauden beste zona batzuetan ere.

Programaren barruan, lanak garatzen diren bitartean ATEX araudiak aplikatzeko operatibo berezia zehaztu beharko da.

- 2) **Obrari eta laguntza teknikoei atxikitako langileak. Otik 10 puntura** bitartean haztatuko da.  
Erakunde kontratistaren taldea diziplina anitzeko kidez osatutakoa izango da eta biogasa hartzeko instalazio/elementuekin dituzte hondakin ez-arriskutsuen zabortegeiak iragazgaiztu eta zigilatze lanetan esperientzia espezifikoa izan beharko du.

Proposamenek txosten teknikoan zehaztu beharko dituzte kontratua gauzatez arduratuko diren langile teknikoaren izenak eta prestakuntza profesionala. Hala, prestakuntza egiaztatzen duen dokumentazioa (titulazioa) eta kontratuaren xedeari (bentonita-manten eta goi-dentsitateko polietilenoazko geomintzen pareko material geosintetikoak erabiliz zabortegeiak zigilatzeako obrak gauzatea) dagokion antzeko lanetan esperientzia profesionala (curriculum zehatza) erantsi beharko dira. Horiek azkeneko bost (5) urtetakoak edo egun gauzaten ari direnak izango dira.

Nolanahi ere, obran kontratistaren ordezkari modura jardungo duen pertsona izendatuko da. Horrek halaberrez gauzatu behar den obrarekin bat datorren titulazioa eta esperientzia izan beharko ditu. Gainera, obra-burua eta arduraduna izendatuko dira.

Baldintza izango da talde teknikoaren kide guztiek banan-banan lanean parte hartzeko konpromisoa hartzea; egiazko arduraldia justifikatuko da eta arduraldi guztia, partziala edo aholkularitzarena, baita obrak gauzaten ari diren bitartean egoitza ere idatziz jasoa utziko da. Egin behar diren lanei dagokienez, emandako orduan justifikatu beharko dira.

Langile horiekiko ondoren egindako edozein aldaketa Administrazioak onartu beharko du eta, horretarako, aldez aurretik izendatu berriak diren teknikarien "curriculum vitaeak" aurkeztu beharko dira.

Egin behar diren obrak konplexuak direnez eta kokagunean ustiatzen ari diren beste unitate batzuekin elkarrekintzan jardungo dutenez, gai horietan langile adituen lankidetzaren proposamena baloratuko da, horiek ohizko ustiapen-funtzionamenduan ez eragiteko neurriak hartzen laguntzen badute.

3) **Obrari atxikitako makineriaren eta bitarteko teknikoaren zerrenda eta iragazgaizpen-paketerako proposatutako materialak eta enpresa instalatzaileak 0tik 20 puntura** bitartean haztatuko da.

Lanak gauzatzeko erabiliko diren makineriaren, bitarteko osagarrien, instalazioen eta ekipoen zerrenda sartuko da eta marka, modeloa, potentzia eta gaitasuna adieraziko dira. Horietatik guztietatik egun jabetzan dutena eta esleipendun izanez gero erosi edo kontratatuko dena aipatuko dituzte.

Mankomunitateak dokumentuen bidez kontratistak bere titulartasunekoak direla aipatzen dituen makineria eta bitarteko osagarriak egiaztatzea eska dezake.

Erabili beharreko bitartekoak jasotzen dituen zerrendan atxikiko diren obra-mota zehaztu beharko da. Ekipoaren ezaugarrietatik abiatuta eta aurkeztutako lanen programarekin bat, asteko batez besteko errendimenduak eta obran eskura egongo diren egunen aurreikuspena ondorioztatuko dira.

Proposamenek modu argian eta zalantzarik gabe zehaztu beharko dute iragazgaizpen-paketeari dagozkion eraikuntza-materialen proposamena. Horretarako, fitxa teknikoak aurkeztuko dituzte eta kasu guztietan eraikuntza-proiektuan eskatutako ezaugarriak betetzen dituztela bermatuko da. Bestela, aurkeztutako eskaintza baztertu ahal izango da.

Era berean, proposamenek modu argian eta zalantzarik gabe zehaztu beharko dute obran iragazgaizpen-paketeari dagozkion eraikuntza-materialak instalatzeko proposatutako enpresa. Berariaz aipatuko dira obrari atxikitako giza baliabideak eta bitarteko materialak.

4) **Hobekuntzak 0tik 5 puntura** bitartean haztatuko da.

Hobekuntzek balio erantsia emango diote aurrez ikusitako lanei. Hobekuntzak izango dira horietan aurrez ikusitako helburuak lortzera laguntzen duten unitate eta neurriak, betiere kostu osagarriak ez badute eta orrian edo proiektuan bertan zehaztutako unitateetatik urrunago garatzen badituzte. Ondoren honako hobekuntza-unitateak kontuan hartzen dira:

- Ingurumen-inpaktuak (besteak beste, zarata, igorpenak...) murrizten dituzten neurriak hartzea, horien eraginkortasunari buruzko adierazle objektiboak zehaztea eta



- proposatutakoaren jarraipen- eta egiaztapen-plana egitea.
- Material geosintetikoaren instalazioa eta ezaugarriak: material desberdinen kokapen-planoak aurkeztea, material desberdinak jartzeko proposatutako konponbideak, alde zuzenetik existitzen diren elementuekin zigiluak bukatzeko konponbideak eta material desberdinen artean marruskadura-angelua adieraztea.

Nolanahi ere, eskaintako hobekuntza bakoitza independentetzat joko da, beraz, kontratazio-organok kontratuaren barruan bat, batzuk edo bat ere ez sartzea erabaki dezake.

**Automatikoki ebaluatuko den irizpideak** proposamen ekonomikoa (2. irizpidea) baloratuko du. Irizpide hau baloratzeko, eskaintzaileek beren azterketa ekonomikotan eskaintako aurrekontu osoa kontuan hartuko da, partida guztiak eta gastu orokorrak, industria-irabazia nahiz BEZ barne.

Ez da onartuko proposamena eskaintako prezioak orri honetan xedatutako gehieneko lizitazio-prezioa gainditzen badu.

Onartutako proposamenei dagozkien eskaintza ekonomikoen puntuazioak eskaintza ekonomiko horien arabera kalkulatu dira.

Proposamen ekonomikoa **0tik 50 puntura** bitartean haztatuko da eta honako puntuazio-sistemari jarraiki baloratuko da:

- 1) Gehieneko puntuazioa (50 puntu) eskaintzarik onenari emango zaio. Gainerako eskaintzei puntuak emateko, honako eragiketa egingo da: beherapen-ehunekoaren eta eskaintzarik merkeenaren artean diferentzia aterako da eta ondoren puntuazio hoberenari hori kenduko zaio. Formula beherago aipatzen da:
  - o Ehunen eta lizitazio-prezioarekiko proposamen ekonomiko bakoitzaren ehunekoaren arteko diferentzia proposamenaren "beherapena" izango da:  
 $100 \times (1 - \text{proposamena} / \text{lizitazioa})$
  - o "Beherapen" handiena duen proposamenari "A beherapena" esango diogu eta gehieneko puntuazioa, hau da, 50 puntu emango zaio. Beste edozein B proposamen honako formularen arabera haztatuko da (puntuazioa zero (0) izanik, eragiketaren emaitza negatiboa bada):  
 $50 - 1,5 \times (A \text{ beherapena} - B \text{ beherapena})$
- 2) Proporzioz kanpokoak edo ohiz kanpokoak izateagatik onar ezin daitezkeen proposamenak hautemateko mugak honakoak dira:
  - o Beren "beherapenek" "batez besteko beherapena" ehuneko hamabost (15) puntutan gainditzen duten proposamenak proporzioz kanpokotzat edo ohiz kanpokotzat joko dira.
  - o "Batez besteko proposamen ekonomikoen beherapenari" "batez besteko beherapena" esango zaio.
  - o "Batez besteko proposamen ekonomikoa" baliozko proposamen ekonomikoen batura zati horien kopurua izango da.

Lotura duten enpresek proposamen desberdinak aurkezten badituzte, HAKLAOk 86. artikuluan xedatutako ondorioak izango ditu ohiz kanpoko edo proporzioz kanpoko balioak (SPKLTBk 152. artikuluan aurrez ikusitakoak) dituzten eskaintzak aplikatzeari buruz.

Proposamen bat proporzioz kanpoko edo ohiz kanpoko bezala identifikatzen denean, aurkeztu duen eskaintzaileari entzun egin beharko zaio eskaintzaren balorazioa justifikatu eta baldintzak zehazteko, bereziki, kontratua gauzatzeko prozedura ahalbidetzen duen aurrezkiari, hartutako konponbide teknikoei eta prestazioa burutzeko salbuespenez dituen aldeko baldintzei, proposatutako prestazioen orijinaltasunari, prestazioa

egingo den tokian indarreko lan-baldintza eta enplegu-babesari buruzko xedapenak errespetatzeari edo Estatuko laguntzak lortzeari dagokienean.

Ohiz kanpoko edo proportzioz kanpoko baloreak sartzegatik proposamenak ezin daitezkeela bete hautemateko parametro objektibotzat joko da kategoria profesionalari erreparatuz gutxieneko ordainsari-kostuak baino prezio txikiagoa adieraztea, indarreko hitzarmen kolektiboaren arabera.

Kontratazio-organoak, eskaintzaileak egindako justifikazioa eta txosten tekniko egokiak kontuan hartuta, eskaintza ohiz kanpoko edo proportzioz kanpoko baloreak sartzegatik ezin dela bete uste badu, sailkapenetik baztertuko du eta ahoz kanpokotzat edo proportzioz kanpokotzat jotzeaz at, ekonomiaren ikuspegitik Administrazioarentzat behar bezala bete daitekeen proposamen abantailatsuenaren aldeko esleipena erabakiko du, horretarako sailkapen-ordenari erreparatuz.

Aipatutako edozein irizpide baloratzeko, proposamena bere osotasunean aztertu ondoren, obrak behar bezala garatuko direla ziurtatzen duten bermeak hartuko dira kontuan nagusiki.

Xede horrez, enpresa eskaintzailearen edo eskaintzaileen historialari jarraiki berezko berme orokorrak eta lizitazioaren xede den obrarekin zerikusia duten bereziak baloratuko dira.

## **17. KONTRATAZIO-MAHAIA**

Kontratazio-mahaia ondorengo kideek osatuko dute:

- Mahaiburua: Mankomunitateko lehendakaria
- Mahaikideak: Mankomunitateko idazkaria
  - Mankomunitateko kontu-hartzailea
  - Mankomunitateko zuzendari-kudeatzailea
  - Mankomunitateko ingurumen-teknikaria
  - Donostiako Udaleko Proiektu eta Obra Saileko teknikari bat
- Mahaiko idazkaria: Mankomunitateko administrari bat

Kontratazio-mahaiak arloan laguntza tekniko espezializatua izateko eskubidea gordetzen du. Horrek aholkularitza-lanetan jardungo du. Era berean, beharrezkotzat jotzen dituen txosten tekniko guztiak eskatzeko ahalmena izango du, kontratua esleitzeari begira.

## **18. KONTRATATZEKO GAITASUNA**

Kontratazio-prozedura honetan jarduteko gaitasun eta lege-ahalmen osoa duten pertsona natural edo juridikoek parte har dezakete, betiere kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala egiaztatzen badute eta Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratuak 60. artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratatzeke debekurik ez badute. Kaudimena 20. klausulako e) eta f) hizkietan zehaztutako bitartekoekin bat egiaztatu eta ebaluatuko da.

Era berean, berez edo baimendutako pertsonak ordezkaturik egin ahal izango dute; bigarren kasuan, xede horrez emandako ahalorde askietsia izango dute. Pertsona juridikoa ordezkaturik kideren bat agertzen bada, dokumentuen bidez justifikatu beharko du horretarako ahalmena duela. Bai kasu batean, baita bestean ere, ordezkariari kontratatzeke ez-gaitasun arrazoiek eragingo diote.

Halaber, enpresaburuak, hala badagokio, kontratu honen xedea den jarduera edo prestazioa gauzatzeko eska daitekeen enpresa-gaitasun edo gaitasun profesionala izan beharko du.

## 19. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO TOKIA ETA EPEA

Kontratazio honen espedientea eta bertan sartutako dokumentazio teknikoa San Markoko Mankomunitatearen bulegoetan, Donostiako Gasteiz kaleko 10. zenbakian, azter daiteke 08:00etatik 14:00etara, lanegun guztietan, iragarkia Europako Batasuneko Aldizkari Ofizialera (EBAO) bidaltzen den unetik hasita proposamenak aurkezteko epea amaitzen denera arte.

Proposamenak adierazitako toki eta ordutegi berean aurkeztuko dira berrogeita bost (45) egun naturalen buruan, iragarkia Europako Batasuneko Aldizkari Ofizialera bidaltzen den egunetik. Larunbata edo jaieguna balitz, epea hurrengo lanegunean amaituko da.

Era berean, lizitazio hau Estatuko Aldizkari Ofizialean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta kontratazio-organoaren kontratugilearen profilean iragarriko da eta bertara honako atari informatiko edo web orriaren bidez irits daiteke: [www.sanmarko.net](http://www.sanmarko.net).

Toki horretan bertan orriak eta dokumentazio osagarria ikusi ahal izango dira.

Beren eskaintzak prestatzeko San Markoko zabortegia bisitatu nahi duten eskaintzaileek aldeztu aurretik idatziz hitzordua eskatu beharko diote Mankomunitateari: ([sanmarko@sanmarko.net](mailto:sanmarko@sanmarko.net)). Hitzordua gehienez eskaintzak aurkezteko epea amaitu baino hamar lanegun lehenago eskatu beharko da. Aldeztu aurretik Mankomunitateak baimendu gabe zabortegian sartzea erabat debekatuta dagoela ohartarazten da.

Eskaintzaileek orriak edo dokumentazio osagarriari buruz informazio gehigarria eskatuz gero, proposamena aurkezteko finkatutako epemuga baino sei egun lehenago eskuratuko da, betiere eskaera gutxienez proposamenak aurkezteko epemuga amaitu baino zortzi egun lehenago egin bada.

SPKLTBk 158.3. artikuluan xedatutakoaren arabera, orri edo dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria adierazitako epeetan ezin izan denean eskuratu, baita eskaintzak bakarrik lursaila bisitatu edo orriari erantsitako dokumentazioa bertan kontsultatu ondoren egin daitekeenean ere, eskaintzak jasotzeko epea hautagaiek eskaintzak formulatzeko informazio guztia ezagut dezaten egokitzat jotzen den denboran luzatuko da.

Proposamenak hartzeko finkatutako epea baino geroago aurkezten badira, ez dira onartuko, nahiz eta idatziz jaso gelditu epea amaitu baino lehen postetxean entregatu direla, kontratazio-organoari postaz bidali den egun berean eskaintzaren bidaltze-data justifikatuz telexa, faxa, telegrama edo posta elektronikoa bidaltzen zaion kasuetan izan ezik. Iragarkia posta elektronikoz bidaliz gero, baliozkotasunari dagokionez, Herri Administrazioen Kontratuari buruzko Legearen Araudi Orokorrik 80.4. artikuluan xedatutakoa bete beharko du. Baldintza hori bete gabe, kontratazio-organoak proposamena aipatu epea amaitu ondoren jasoz gero ez da onartuko. Hala eta guztiz ere, data horretatik proposamena jaso gabe hamar (10) egun natural igarotzen badira, ez da inolaz ere onartuko.

Proposamena entregatu edo bidali ondoren, ezingo da erretiratu, kontratuari aplikatzen zaizkion legeriak aurrez ikusten dituen kasuetan izan ezik.

## 20. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO MODUA

Eskaintzaileek "OINARRIZKO PROPOSAMEN" bakarra aurkeztuko dute eta eskusiboki onartutako proiektuari buruzkoa izango da. Hala, aldaerak aurkeztea ez da onartuko, aurkeztutako proiektuak ingurumen-organoak ikus onetsi baitu eta edozein aldaketa, nabarmentzat joz gero, aldeztu aurretik onartzeko aurkeztea beharrezkoa bailitzateke.

Proposamenak aurkeztuz gero, eskaintzaileak baldintzarik gabe onartzen ditu proiektua, orri honen eta baldintza teknikoaren orriaren baldintzak nahiz kontratuan dauden gainerako dokumentuak, salbuespenik gabe. Horrez gain, aitoren arduratsua egin beharko du aurkeztutako datu guztiak egiazkoak eta zehatzak direla eta baldintza-orri honen xede den kontrataziorako eskatutako baldintza guztiak betetzen dituela azalduz.

Eskaintzaile bakoitzak proposamen bakarra aurkez dezake. Halaber, ezingo du beste batzuekin aldi baterako elkartean proposamenik sinatu, banan-banan egin badu. Azkenik, ezingo da aldi baterako elkarte batean baina gehiagotan azaldu. Arau hauek hautsiz gero, berak sinatutako proposamenik ez da onartuko.

Aurkeztutako dokumentazioa Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialen batean (euskaraz edo gaztelaniaz) idatzi beharko da. Beste hizkuntza batean idatzia badago, itzulpen ofiziala aurkeztu beharko da.

Eskaintzaileek hiru gutun-azal (A, B eta C) itxi aurkeztu beharko dituzte eta bakoitzean honakoa idatziko da: "PROZEDURA IREKIAREN BITARTEZ "DONOSTIALDEAN (GIPUZKOA) SAN MARKOKO ZABORTEGIAREN II. FASEA BERRESKURATU ETA IXTEKO PROIEKTUAREN" BARRUAN IIA AZPIFASEARI DAGOZKION OBREN KONTRATAZIOAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA".

Gutun-azal bakoitzean enpresaren izena eta proposamena sinatzen duen pertsonaren izen-abizenak eta nola egiten duen adieraziko dira. Gutun-azalak sinatu egingo dira.

Gutun-azal bakoitzaren barruan orrialde berezian edukia idatziz jasoko da, zenbakiz adierazita (HAKLAOren 80.1. artikulua).

**"A" gutun-azalak "KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA" izenburua izango du eta hurrengo dokumentuak sartuko dira:**

**a) Enpresaburuaren jarduteko gaitasuna eta, hala badagokio, ordezkari-tza egiaztatzen duten dokumentuak**, HAKLAOk 21. artikuluan aurrez ikusitakoarekin bat.

Jarduteko gaitasuna hurrengo moduan egiaztatuko da:

- Partaidearen edo ordezkariaren Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia. Gainera, beste pertsona edo erakunde baten izenean jarduten badu, notarioaren ahalordea, gutun-azal honetan aurkeztutako dokumentazioaren kalifikazio-prozesuan erakundeak askietsia.
- Eskaintzailea pertsona fisikoa denean, eratze- edo aldatze-eskritura, hala badagokio, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatua eta identifikazio fiskalaren zenbakia, aplikagarria zaion merkataritza-legeriarekin bat inskribapena betekizuna denean. Hala ez bada, jarduteko gaitasuna eratze-eskritura edo –dokumentuarekin, fundazio-estatutu edo -egintzarekin egiaztatuko da. Bertan jarduera arautzen duten arauak egongo dira, hala badagokie, dagokion erregistro ofizialean inskribatuak.
- Enpresaburuak espainiarrak ez direnean, baina Europako Batasuneko estatu kide batean kokatuak daudenean, dagokion erregistroan inskribapena egiaztatu beharko dute, kokatuak dauden estatuko legeriarekin bat edo zinpeko aitortpena edo ziurtagiria aurkeztuz, komunitateko xedapen aplikagarrien arabera.
- Gainerako enpresaburu atzeritarrek jarduteko gaitasuna enpresaren helbidea dagoen lurralde-eremuan Espainiako Misio Diplomatiko Iraunkorren edo Bulego Kontsularraren txostenarekin egiaztatuko dute.

b) **Berariazko aitortpen arduratsua**, II. Eranskin bezala erantsia dagoen ereduarekin bat. Horretan SPKLTBk 60. artikuluan xedatutakoari jarraiki, kontratatzeko debekurik ez duela adieraziko du eta artikulua horretako 1. ataleko c) hizkia, lanean segurtasunaren eta osasunaren arloan oso arau-hauste larriarekin behin betiko zigortu ez izana eta zerga-obligazioak eta gizarte-segurantzarekiko obligazioak eguneratuak izana, espreski aipatuko da, HAKLAOk 13. eta 14. artikuluetan aurrez ikusitako norainoko eta moduan.

c) **JEZn alta emana dagoela egiaztatzea**, hain zuzen ere, kontratuaren xedari dagokion epigrafean; horretarako, ekitaldi honetakoa bada, alta edo, gainerako kasuetan, JEZren azkeneko

ordainagiria aurkeztuko da. Bi kasuetan zergaren matrikulan baja ez dela eman adierazten duen aitorten arduratsua (II. eredua) erantsiko da.

d) **Sailkapena egiaztatzen duen erregistro eskudunaren ziurtagira** nahikoa eta iraungi gabe, hurrengo taldean, azpitaldean eta kategorian kontratatzeko gaitzen duena:

A taldea, A-1 eta A-2 azpitaldeak, f kategoria  
E taldea, E-3 azpitaldea eta f kategoria

Ziurtagiriarekin batera, eskaintzailearen aitorten arduratsua aurkeztu beharko da eta bertan ziurtagirian adierazitako egoerek aldaketarik ez dutela izan azalduko da.

Enpresa sailkatzearen zain badago, horretarako eskaera aurkeztu duela egiaztatzen duen dokumentua erantsi beharko du eta eskatutako sailkapena dokumentazioaren akatsak edo ez-egiteak konpontzeko epean baduela justifikatu beharko du.

e) **Isilpeko eskaintzaileen dokumentuak eta datuak.** SPKLTBk 140. artikuluan aurrez ikusten duen bezala, enpresa eskaintzaileek, kasua izanez gero, aitorten osagarriaren bidez zer dokumentu administratibo eta tekniko nahiz datu beren ustez isilpekotzat jo behar diren adieraziko dute, III. Eranskinari jarraiki. Gainera, gorabehera hori argi eta garbi azalduko da dokumentuan bertan, gaininprimatua, baztertuta edo beste edozein modutan. Enpresa eskaintzaileek aurkeztutako dokumentuak eta datuak isilpekotzat jo daitezke, hirugarrenei zabaltzea legezko merkataritza-interesen kontra doanean, sektoreko enpresen arteko lehia leiala kalte dezakeenean edo 15/1999 Lege Organikoak, abenduaren 13koak, Datu Pertsonalak Babesteari buruzkoak, xedatutako debekuetan sartzen direnean. Aitorten hori egiten ez bada, ezaugarrien arabera, dokumentu edo datu batzuk ala guztiak ez dira konfidentzialtzat joko.

f) Horiez gain, erakunde eskaintzaileak lehiaketa publikoan parte hartzeko honako **kaudimen-baldintzak** bete beharko ditu:

**Kaudimen tekniko eta profesionala** SPKLTBk 76. artikuluan xedatutakoari jarraiki egiaztatuko da, ondorengo dokumentuak aurkeztuz:

1. Gasa ateratzen den hondakin ez-arriskutsuen zabortegetan zigilatze-obra azkeneko bost urteetan; obra garrantzitsuenen kasuan, behar bezala gauzatu direla azaltzen duten ziurtagiriak aurkeztu beharko dira. Ziurtagirietan zenbatekoa, datak, obra gauzatu den tokia eta hartzaile publiko edo pribatuak agertuko dira. Egindako zerbitzuak organo eskudunak burututako ziurtagiriaren bitartez egiaztatuko dira eta hartzailea subjektu pribatua denean, horrek egindako ziurtagiriaren bidez. Mankomunitateak informazioa aztertu eta alderatzeko eskubidea gordetzen du, hori arloan organo eskudunak egindako ziurtagiriaren bitartez egiaztatu ez bada.
2. Kalitate-saiakuntzak egitez arduratuko diren laborategiek organo eskudunak egin ostean indarreko ziurtagiriak izango dituzte. Zehatz-mehatz esanda, material geosintetikoaren gaineko saiakuntzei dagokienez, laborategiak UNE-EN ISO/IEC 17025 arauaren arabera indarrean ziurtagiria duela ziurtatu beharko da. Kasu guztietan horiei dagokien norainokora moldatu beharko du.
3. ISO 14001 ingurumen-ziurtagiria edo EMAS izatea.

Gutxienez kontratuaren xedearen antzeko lan bat (1) egin ez duten eta laborategien irizpidea betetzen ez duten enpresen eskaintzak baztertu egingo dira.

Azken bost urteetan egindako obratzat jotzeko, gutxienez epearen erdia denboraldi horretan burutu da.

**Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa** SPKLTBk 75. artikuluan xedatutakoari jarraiki egiaztatuko da, ondorengo dokumentuak aurkeztuz:

1. Negozioen bolumen orokorrari eta kontratuaren xedearen jarduera-eremuan negozio-bolumenari buruzko aitortena, gehienez eskura dauden hiru (3) ekitalditakoak. Azken hiru (3) urteetan

gutxienez lizitazioaren oinarriko aurrekontuari dagokion batez besteko negozio-bolumena egiaztatu beharko da urtean.

2. Obrari aurre egiteko gaitasun finantzarioa dutela egiaztatzen duen erakunde finantzarioen txostena.
3. 1.000.000 €-ko erantzukizun zibilaren aseguruari dagokion frogagiria.

g) Proposamena **aldi baterako enpresen elkartean** egiten denean, kide bakoitzak gaitasuna eta obren enpresa kontratista bezala kaudimena –sailkapena, hala badagokio- egiaztatu beharko ditu. Halakoetan, dagokionaren arabera, kide bakoitzaren kasuan egiaztatutako ezaugarriak edo ABEEen kide bakoitzaren banan-banako sailkapenak metatuko dira, orri honetan eskatutako kaudimen/sailkapen orokorra egiaztatzeko. Era berean, guztien legezko ordezkariak sinatutako dokumentua aurkeztu beharko da. Horretan, sinatzen duten enpresaburuaren izenak eta egoerak azalduko dira eta esleipendunak izanez gero, enpresen aldi baterako elkartean legez osatzeko konpromisoa onartuko dute. Horiez gain, bakoitzaren partaidetza adieraziko da eta kontratuaren indarraldian Administrazioaren aurrean ordezkari osoa izango duen pertsona izendatuko da.

Sailkapena eskatu behar den kasuetan, enpresaburu nazionalen, Europako Batasuneko Estatu kide batekoak ez diren atzerritarren eta Europako Batasuneko Estatu kidekoak diren atzerritarren aldi baterako elkartean badoaz, lehenengo bi multzotakoak sailkapena egiaztatu beharko dute eta azkenekoak kaudimen ekonomiko eta finantzarioa, teknikoa edo profesionala.

h) **Enpresa atzerritarren** kasuan, kontratuaren ondorioz zuzenean edo zeharka sor daitezkeen gorabehera guztietarako edozein mailatan Espainiako Epaitegi eta Auzitegien jurisdikzioa beteko dutela adierazten duen aitortpena. Gainera, eskaintzaileari dagokion atzerriko jurisdikzio-foruari uko egingo diote.

Azterriko enpresa ez-komunitarioek, horrez gain, Espainian sukurtsala irekia dutela egiaztatu beharko dute eta beren eragiketarako ahaldunak edo ordezkariak izendatuko dituzte. Azkenik, Merkataritza Erregistroan inskribatuak egongo dira.

Enpresa horiek aurkeztutako dokumentazioa ofizialki gaztelaniara edo euskarara itzulia egongo da, HAKLAOk 23. artikuluan xedatutakoari jarraiki.

i) Prozedura honen ondorioz egingo diren jakinarazpenak bidaltzeko posta elektronikoaren helbidea, SPKLTBk 151.4. artikuluan aurrez ikusitakoaren arabera eta bertan xedatutako ondorioetarako.

b) eta c) hizkietan aipatutako egoerak Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratista eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialari edo Estatuko Eskaintzaile eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialari dagozkion ziurtagiriaren bitartez edo sailkapen-ziurtagiri komunitarioaren bidez egiaztatu daitezke, SPKLTBk 84. artikuluan xedatutakoarekin bat. Ziurtagiriarekin batera, eskaintzailearen aitortpen arduratsua aurkeztu beharko da eta bertan ziurtagirian adierazitako egoerek aldaketarik ez dutela izan azalduko da.

Eskatutako dokumentazio guztia jatorrizko dokumentuan edo kopian aurkeztuko da eta Administrazioak edo notarioak behar bezala konpultsatu edo egiaztatu beharko du.

**“B” gutun-azalak “IRITZIAREN ARABERAKO BALORAZIO-IRIZPIDEAK” izenburua izango du** eta iritziaren arabera balorazio-irizpideei buruzko dokumentazioa sartuko da. Irizpideak orri honen 16. klausulan aipatu dira.

Gutun-azal honetan sartutako dokumentazioa bi aldeak erabiliz paperean eta formatu digitalean aurkeztu beharko da.

Erakunde eskaintzaileak azpikontratatu diren lanaren zatiak zehaztuko ditu eta eskaintako aurrekontu guztian horrek suposatzen duen ehunekoa, baita azpikontratatu diren erakundeen ezaugarri teknikoak ere adieraziko ditu.

Gutun-azal honetan ez da preziorik aipatuko. Kontratazio-mahaiak aurkeztutako eskaintza baztertuko du, puntu hau betetzen ez bada.

Eskaintzailearen batek esleipen-irizpideekin zerikusia duen dokumentazioa aurkezten ez badu edo horrek aurreko paragrafoetan eskatutako baldintza guztiak betetzen ez baditu, eskaintzailearen proposamena irizpide horrekiko ez da baloratuko.

**“C” gutun-azalak “PROPOSAMEN EKONOMIKOA ETA BALORAZIO-IRIZPIDE AUTOMATIKOA” izenburua izango du.** Honako dokumentuak sartuko dira:

Gutun-azal honetan sartutako dokumentazioa paperean eta formatu digitalean aurkeztu beharko da. Txosten ekonomikoaren kasu zehatzean, Excel euskarrian entregatuko da.

a) Proposamen ekonomikoa I. eranskin bezala erantsitako ereduarekin bat

Dokumentu honetan izendatutako zenbatekoan obra kontratatu eta gauzatzeko sortzen diren gastu guztiak sartuak egongo dira eta zehatz-mehatz esanda ondorengoak:

- Litzitazioaren eta esleipenaren gastuak gehienez 3.000 eurora arte eta, hala badagokio, kontratua legeztatzeari dagozkionak.
- Esleipendunak kontratatutako prestazioa betetzeko egin behar dituen gastuak, orokorrak, finantzarioak, aseguruena, tasak, fidantzak, saiakuntzak, garraioa eta joan-etorriak, bere kargura dituen langile tekniko eta laguntzaileen ordainsariak eta dietak eta orri honetan aurrez ikusitako gainerakoak barne.
- Zerga-mota guztiak, BEZ eta kontratuaren indarraldian jar edo alda daitekeen beste edozein barne.

b) Proposamen ekonomikoarekin batera, TXOSTEN EKONOMIKOA aurkeztuko da eta bertan prezio unitarioak berezita azalduko dira. Definitutako obra-unitateek prezio unitarioa atxikia izango dute (1. prezioen koadroa) eta gauzatze materialaren prezio bezala definituko da. 2. prezioen koadroan (prezio deskonposatuak) prezio unitarioa zatika (garraioa, hornidura, eskulana, etab.) banatuko da. Prezio unitarioen zerrendak ez aurkeztea baztertzeko arrazoia izan daiteke.

Ondoren, kontzeptu hauek ezingo dira kontzeptu edo partida independente bezala jasanarazi.

San Markoko Mankomunitateak, esleipenaren aurretik eta ondoren eta kontratua gauzatzen ari den bitartean, proposamenaren edukia egiazkoa dela ziurtatu ahal izango du. Hala, enpresak datu edo gorabehera faltsuak aurkezten baditu, kontratistari egotz dakioken ez-betetzeagatik kontratua ebazteko arrazoia izango da eta osatutako behin betiko bermea galduko du.

Proposamena enpresen multzoak formulatzen duenean, osatzen duten guztiek proposamena sinatu beharko dute.

Eskaintzailearen batek esleipen-irizpideekin zerikusia duen dokumentazioa aurkezten ez badu edo horrek aurreko paragrafoetan eskatutako baldintza guztiak betetzen ez baditu, eskaintzailearen proposamena irizpide horrekiko ez da baloratuko.

## 21. AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA IREKI ETA TRATATZEA ETA ENPRESAK HAUTATZEA

Proposamenak aurkezteko epea amaitzen denean, honako jarduerak egingo dira:

### 1.. "A" GUTUN-AZALA IREKITZEA ETA DUEN DOKUMENTAZIOA TRATATZEA

Mahaiak "A" gutun-azalean dagoen dokumentazioa kalifikatuko du. Xede horrez, eskaintzaileen gaitasun edo kaudimenari buruzko argibideak edo dokumentu osagarriak eska daitezke eta bost (5) egun naturalen buruan eskuratu beharko dituzte, Herri Administrazioen Kontratuari buruzko Legearen Araudi Orokorrek 22. artikuluan xedatutakoarekin bat. Argibideak edo informazio osagarria nahi izanez gero, mahaiak interesatuei ahoz jakinaraziko die eta, aldi berean, kontratazio-organoaren iragarkien oholtzan nahiz kontratugilearen profilean iragarriko da. Modu berean jakinaraziko du mahaiak aurkeztutako dokumentazioan konpon daitezkeen akatsak daudela eta, hala badagokio, Araudiak 81. artikuluan xedatutakoaren arabera, hiru (3) laneguneko epean eskaintzaileek zuzentzeko aukera izango dute.

### 2.. ENPRESAK HAUTATZEA

Mahaiak, aurkeztutako dokumentazioa kalifikatu ondoren eta ikusitako akatsak edo ahazteak konpondu ostean, hautapen-irizpideetara moldatzen diren enpresak zehazteari ekingo dio. Irizpideak orri honetako 20. klausulako f) hizkian (sailkapena eta kaudimen tekniko edo profesional eta ekonomiko eta finantzariako baldintzak) agertzen dira. Berariaz aipatuko ditu lizitaziorako onartutakoak, baztertutakoak eta baztertearen arrazoiak.

### 3.. "B" GUTUN-AZALA JENDAURREAN IREKITZEA

"B" gutun-azalean aurkeztutako dokumentazioa, iritziaren arabera irizpideak dituen, egintza publikoan irekiko da gehienez zazpi (7) eguneko epean, administrazio-dokumentazioa (A gutun-azala: kontratatze gaitasuna eta kaudimena) irekitzen den unetik zenbatzen hasita. Kontratugilearen profilean ([www.sanmarko.net](http://www.sanmarko.net)) eta faxez edo posta elektronikoz eskaintzaile onartuei bidalitako jakinarazpenean adierazten den tokian, datan eta orduan egingo da. Une horretan baloratzeko arduratuko den organoari dokumentazioa entregatuko zaio.

Irizpide hauek baloratzeko 45 egun izango dira, irekitze-egintza egin eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Beste fasera bakarrik 1. irizpidearen arabera ebaluazioan gutxienez 30 puntuko atalasea gainditzen duten proposamen teknikoak pasako dira.

### 4.. "C" GUTUN-AZALA JENDAURREAN IREKITZEA

"B" gutun-azala ireki eta bertan dagoen dokumentazioa baloratu ondoren, "C" gutun-azala irekiko da kontratugilearen profilean adierazten den egunean eta orduan.

Egintza honetan eskaintza bakoitzari erreparatuz iritziaren arabera irizpideetan egindako balorazioaren berri emango da.

### 5.. ESKAINTZAK SAILKATZEA

Irizpide guztiak baloratu ostean, mahaiak beheranzko ordenan aurkeztutako proposamenak sailkatuko ditu eta kontratuaren esleipen-proposamena egingo dio kontratazio-organoari.

SPKLTBk 152. artikuluan aurrez ikusitakoaren babesean, proposamen bat edo batzuk proportzioz kanpokotzat edo ohiz kanpokotzat jo daitezkeenean, eskaintzak proportzioz kanpokotzat edo ohiz kanpokotzat aitortzeko, lehenik eta behin eskaintzaileari edo eskaintzaileei entzungo zaie eta txosten tekniko egokiak egingo dira.



Ohiz kanpoko edo proportzioz kanpoko baloreak sartzeagatik proposamenak ezin daitezkeela bete hautemateko parametro objektibotzat joko da kategoria profesionalari erreparatuz gutxieneko ordainsari-kostuak baino prezio txikiagoa adieraztea, indarreko hitzarmen kolektiboaren arabera.

Kontratazio-organoak, eskaintzaileak egindako justifikazioa eta txosten tekniko egokiak kontuan hartuta, eskaintza ohiz kanpoko edo proportzioz kanpoko baloreak sartzeagatik ezin dela bete uste badu, sailkapenetik baztertuko du eta ahoz kanpokotzat edo proportzioz kanpokotzat jotzeaz at, ekonomiaren ikuspegitik Administrazioarentzat behar bezala bete daitekeen proposamen abantailatsuenaren aldeko esleipena erabakiko du, horretarako sailkapen-ordenari erreparatuz.

Jardundako guztia espedientean idatziz jasota utziko da eta, horretarako, halabeharrezkoak diren aktak egingo dira.

Gehieneko esleipen-epea bi (2) hilabetetako izango da, proposamenak irekitzen diren unetik eta hamabost (15) lanegun osagarritan zabal daiteke proportzioz kanpoko edo ohiz kanpoko eskaintzen kasuan.

## 6.. LEHENENGO SAILKATUARI ESKEAK

Aurreko jarduerak egindakoan, lehenengo sailkatuari hamar (10) lanegunetako epean, eskea jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, honako jarduerak gauzatzea eskatuko zaio:

- a) Zerga-obligazioak eta gizarte-segurantzarekiko obligazioak betetzen dituela justifikatzen duen dokumentazioa aurkeztea edo kontratazio-organoari zuzenean egiaztapen hori lortzeko baimena ematea. Dokumentazio hori aurkeztea ez da beharrezkoa izango, ziurtagiriak proposamenarekin batera aurkeztu baditu. Zerga-obligazioak eta gizarte-segurantzarekiko obligazioak betetzen dituela sei hilez behin eguneratu beharko du kontratuaren indarraldi guztian, egiaztapen-dokumentazioaren aldi baterako balioa denboraldi horretarako baita. Kontratua ebatz daiteke, kontratua legez tatu ondoren zergaren eta gizarte-segurantzaren arloan indarreko legeriak ezarritako obligazioak ez betetzeagatik.
- b) Orri honetan aurrez ikusitakoarekin bat, kontratua gauzatzeko atxikiak dituen bitartekoak egiaz badituela justifikatzen duen dokumentazioa aurkeztea.
- c) Behin betiko bermea osatu izana justifikatzen duen dokumentazioa aurkeztea.
- d) Esleipendunak erantzukizun zibila estali eta orrietan aipatzen den gutxieneko estaldura duen aseguru-poliza eta esleipen-zenbateko guztiarengatik (BEZ barne) eraikuntzan arrisku orotako aseguru sinatu dituela egiaztatu beharko du.
- e) Esleipenduna enpresen elkarte baliatuz, kontratua legez tatzeko emandako epearen barruan aldi baterako enpresen elkarte eskritura publikoan legez eratu dela egiaztatu beharko du, baita elkartearen IFZ aurkeztu ere. Aldi baterako enpresen elkartearen iraupena kontratuaren iraupenarekin bat etorriko da. Enpresaburuek Administrazioaren aurrean solidarioki erantzungo dute eta iraungi arte kontratuaren ondorioz sortutako eskubideak erabili nahiz eginbeharrak betetzeko ahalorde askietsiekin elkarteko ordezkarari edo ahaldun bakarra izendatuko dute, alde batera utzi gabe zenbateko esangarriak ordaindu eta kobratzeko ahalorde mankomunatuak izatea.
- f) "LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOAREN ARLOAN ENPRESA JARDUEREN KOORDINAZIOAREKIN" zerikusia duen dokumentazioa, 171/2004 EDLk, urtarrilaren 30ekoak, enpresa-jardueren koordinazioaren arloan Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 24. artikulua garatzen duenak, xedatutakoaren arabera.

Eskea aipatu epean behar bezala osatzen ez bada, eskaintzaileak eskaintza erretiratu duela ulertuko da eta, hala badagokio, hurrengo eskaintzaileari dokumentazio berdina eskatuko zaio. Horretarako, eskaintzen sailkapen-ordena kontuan hartuko da.

## **22. ESLEIPENA, LEGEZTAPENA ETA GASTUAK**

Kontratazio-organoak kontratua ekonomikoki proposamena abantailatsuena aurkeztu duen eskaintzaileari esleitzea erabakiko du.

Kontratazio-organoak dokumentazioa jaso eta hurrengo bost (5) lanegunen buruan kontratua esleitu beharko du.

Esleipen arrazoitua hautagai eta eskaintzaileei jakinaraziko zaie eta, aldi berean, kontratugilearen profileen argitaratuko da. Jakinarazpena hartzaileak hartu izana idatziz jaso uzten duen edozein bitarteko erabiliz egingo da. Bereziki, posta elektronikoz egin daiteke proposamenak aurkeztean hautagaiek edo eskaintzaileek izendatutako helbidera, 11/2007 Legeak, ekainaren 22koak, Herritarrek Zerbitzu Publikoetara Atzipen Elektronikoa izateari buruzkoak, 28. artikuluan xedatutako baldintzetan. Jakinarazpena baztertutzat jotzeko epea, berriz, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59.4. artikuluan aurrez ikusitako ondorioekin, bost (5) eguneko izango da.

40.1. artikuluekin bat, kontratuak kontratazioaren arloan errekurtsio berezia izan dezakeenez, ezingo da legezatu esleipena eskaintzaileei eta hautagaiei SPKLTBk 151.4. artikuluan aurrez ikusitako moduan jakinarazten zaien unetik hamabost lanegun igaro arte.

Esleipen-jakinarazpenean aipatutako epean esleipendunak honako jarduerak egin beharko ditu:

- a) Kontratua administrazio-dokumentuan legeztatzeko Administrazio honetan agertzea.
- b) Publizitate ofizialaren gastuak (gehienez 3.000 €) ordaintzea.

Kontratua administrazio-dokumentuan legeztatuz gauzatuko da eta lizitazioaren baldintzak zorrozki beteko ditu. Aipatu dokumentua edozein erregistro publikotara eramateko nahikoa titulu izango da. Hala eta guztiz ere, kontratistak kontratua eskritura publiko bihurtzea eska dezake eta gastuak bere kargura izango dira.

Kontratua legeztatzeko egintza berean, sinatzearekin batera, esleipendunak ondorengoak sinatuko ditu: txostena, planoak, baldintza teknikoen orriak eta proiektuaren aurrekontuari dagokion prezioen koadroa, baita administrazio-baldintza berezien orria ere. Hala, ezagutzen dituela eta ados dagoela idatziz jasoak geldituko dira.

Azkenik, kontratua legeztatzen duen egun berean, esleipendunak Administrazio honetan agertu beharko du proiektuaren zuinketa egiaztatu eta dagokion akta sinatzeko. Une horretatik aurrera, kontratuaren gauzatze-epea zenbatzen hasiko da.

SPKLTBk 155. artikuluan aurrez ikusitakoaren babesean, kontratua gauzatzeari uko egiten bazaio edo prozedura bertan behera uzten bada, lizitazioak eskaintzaileei sortutako gastuak Administrazioak finkatuko ditu, horiek entzun eta justifikatuta.

Kontratua kontratistari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik legeztatzen ez bada, Administrazioak ebaztea erabaki dezake, interesatua entzun ostean eta kalte-galerengatik ordaina izango da.

## **III.- IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKOA ETA ESKUMEN AGINPIDEDUNA**

## **23. KONTRATUAREN IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA**

Kontratua erregulazio harmonizatuaren arabera obren administrazio-kontratua izango da eta ondorengoetan halako kontratu-moten bidezko legeen bitartez arautuko da: indarreko SPKLTB, indarrean jarraitu ahala, HAKLAO edo araubidez ordezkaturiko duten arauak, Estatuan obrak kontratatzekeko administrazio-baldintza orokorren orrian, 1970eko abenduaren 31koan, indargabetuak gelditzen ez diren arauak, Euskal Autonomia Erkidegoan nahiz Gipuzkoan kontratazioa arautzen duten beste xedapen batzuk, horiek aplikagarriak badira eta, nolana ere, orri honetako nahiz proiektuaren baldintza teknikoaren orriko baldintzak eta klausulak eta, kasuak kasu, Herri Administrazioen kontratazioan aplikagarriak diren gainerako arauak.

Administrazio-baldintza berezien orri honen eta espedientearekin batera doan gainerako dokumentazio teknikoaren artean kontraesana izanez gero, orriak xedatutakoa nagusi izango da.

## **24. DATU PERTSONALAK BABESTEIA**

Kontratazio honetarako datu pertsonalak lortu behar badira, kontratistak 15/1999 Lege Organikoari, abenduaren 13koari, Datu Pertsonalak Babesten dituenari, buruz SPKLTBk hogeita seigarren xedapen gehigarrian eta garapen-araudian aipaturako eginbeharrak bete beharko ditu.

## **25. ESKUMEN AGINPIDEDUNA**

Kontratu honen ondorioz sor daitezkeen gai gatazkatsuak kontratazio-organoak ebatziko ditu eta horren erabakiek administrazio-bidea amaituko dute. Horien kontra zuzenean administrazioarekiko auzi eskumenaren aurrean egin ahal izango da, hala badagokio, kontratazioaren arloan errekurtsio berezia jar daitekeela alde batera utzi gabe. Hori SPKLTBk 40. artikulutik 49. artikulura bitartean arautzen du. Bestela, 30/1992 Legeak, azaroaren 26koak, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak, araututako edozein jar daiteke.

Erabaki hauen kontra egiteko eskumen aginpideduna administrazioarekiko auzietakoa da; hala eta guztiz ere, aldeek gatazkak arbitrajearen bidez ebaztea erabaki dezakete, indarreko legeriak xedatutakoarekin bat.

## **26. KONTRAESANEN USTEZKOAK**

Zehaztapen ekonomiko-administratiboei dagokienez, proiektua eta administrazio-baldintzen orria osatzen duten dokumentuen artean kontraesanak badaude, honetan dauden klausulak nagusi izango dira.

## I. ERANSKINA

### PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA

..... jaun/andreak,  
 .....n (PK:.....) helbidea duenak,  
 ..... NAN zenbakiarekin, ..... telefono-zenbakiarekin eta  
 ..... e-postarekin, lege-ahalmen eta jarduteko gaitasun osoz,  
 bere izenean edo (.....ri  
 ordezkatzuz ..... (helbidea:

.....;  
 PK:.....; telefonoa:..... eta NAN edo IFK (*persona fisiko edo juridikoa izatearen arabera*): .....), "Donostialdean (Gipuzkoa) San Markoko zabortegia Ila fasean berreskuratu eta ixteko proiektuan" obrak kontratatzeko San Markoko Mankomunitateak iragarritako prozedura irekiaz jakitun izanik, honakoa

#### AITORTZEN DU:

- 1º) Proiektua, bere edukia eta administrazio-baldintza berezien orria nahiz kontratu hau arautu behar duen gainerako dokumentazioa ezagutzen dituela eta oso-osorik berriaz onartzen dituela.
- 2º) Ordezkatzuz duen enpresak kontratu hau gauzatzeko indarreko araudiak eskatzen dituen baldintza eta eginbehar guztiak betetzen dituela, baita kontratuak eskatutako baldintza bereziak ere.
- 3º) Esleipenduna izanez gero, eskaintzan dagoen dokumentazioarekin bat eta, nolana ere, onartutako proiektu eta orrietan xedatutako baldintzei zorrozkiki jarraiki gauzatzeko konpromisoa hartzen duela eta honako prezioan izango dela:

..... (hizkiz eta zifraz adierazi behar da) **euro gehi** .....(hizkiz eta zifraz adierazi behar da) ....(hizkiz eta zifraz adierazi behar da) **BEZ kontzeptupean (% .....**). Prezioan kontzeptu guztiak (zergak, gastuak, tasak eta zerga-arloko edozein ariel, baita BEZ eta kontratistaren industria-irabazia barne) sartuak daudela ulertu behar da.

Orri berezian proposamen hau kontzeptu eta prezio unitarioran banatuta dago.

- 4º) Era berean, lanaren eta zergaren arloan legeria edo araudia betetzeko konpromisoa hartzen duela.

.....n, 2013ko .....aren .....an

Sinadura

## II. ERANSKINA

### AITORPEN ARDURATSUAREN EREDUA

..... jaun/andreak, adin nagusikoak, NAN zenbakiarekin eta .....n helbidea duenak (telefonoa: Faxe: E-posta: ), ....., bere izenean edo ..... (merkataritza-erakundeari ordezkatzuz (IFZ: .....; sozietatearen helbidea: .....; telefonoa: .....; faxe: .....; e-posta: .....)) aitortzen du, bai berak, baita berak ordezkatzuz duen enpresak ere, herri-administrazioarekin kontratatze ahalmena duela, jarduteko gaitasun osoa izanik, SPKLTBk 60. artikuluan aurrez ikusitako egoeratan ez baitago. Bereziki, berariaz aitortzen du lanean segurtasun eta osasunaren arloan arau-hauste oso larriarengatik behin betiko zigorrik ez duela jaso, SPKLTBk 60.1. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Era berean, aitortzen du

- Indarreko xedapenei eutsiz, zerga-obligazioak eta gizarte-segurantzarekiko betebeharrak eguneratuak dituela, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrak (urriaren 12ko 1098/2001 ED) 13. eta 14. artikuluetan aurrez ikusitako norainokoarekin.
- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan, kontratuaren xedeari dagokion epigrafean, alta emana dagoela eta zerga horren matrikulan ez dela baxarik eman.

*(Tokia, data eta sinadura)*

.....n, 2013ko .....aren .....an

Sinadura

### III. ERANSKINA

#### ENPRESAK ESKURATUTAKO INFORMAZIOEN KONFIDENTZIALTASUNARI BURUZKO AITORPENAREN EREDUA

..... jaun/andreak,  
.....n (PK:.....) helbidea duenak,  
..... NAN zenbakiarekin, ..... telefono-zenbakiarekin eta  
..... e-postarekin, lege-ahalmen eta jarduteko gaitasun osoz,  
bere izenean edo (.....ri  
ordezkatuz (helbidea:  
.....);

PK:.....; telefona:..... eta NAN edo IFK (*persona fisiko edo juridikoa izatearen arabera*): .....), "Donostialdean (Gipuzkoa) San Markoko zabortegia IIa fasean berreskuratu eta ixteko proiektuan" obrak kontratatzeko San Markoko Mankomunitateak iragarritako prozedura irekiaz jakitun izanik eta SPKLTBk 140. artikuluan xedatutakoa aplikatuz, honakoa

#### AITORTZEN DU:

Prozedura irekiaren bitartez "Donostialdean (Gipuzkoa) San Markoko zabortegiaren II. fasea berreskuratu eta ixteko proiektuaren" barruan IIa azpifaseari dagozkion obren kontratazioan parte hartzeko proposamenaren ..... gutun-azalean sartutako dokumentazioari dagokionez (adierazi gutun-azalaren izenburua), eskaintzaren honako dokumentu administratibo eta teknikoak isilpekoak dira:

- 
- 

hirugarrenei zabaltzea legezko merkataritza-interesen kontrakoa izan baitaiteke (...), sektoreko enpresen arteko lehia leiala kalte baitezake (...) edo 15/1999 Lege Organikoak, abenduaren 13koak, Datu Pertsonalak Babesteari buruzkoak, xedatutako debekuetan sartzen baitira (...).

Konfidentzialtasuna honako arrazoiekin justifikatzen dela:

- 

.....n, 2013ko .....aren .....an

Sinadura

#### IV. ERANSKINA

##### ALDI BATERAKO ELKARTEA ERATZEKO KONPROMISOA

jaun/andreak, NAN zenbakiarekin, ren izenean (IFK: ), eta xede horietarako helbidea n (PK: ), kaleko . zenbakiaren solairuan, duenak, ... telefonoarekin eta ...faxarekin eta,

jaun/andreak, NAN zenbakiarekin, ren izenean (IFK: ), eta xede horietarako helbidea n (PK: ), kaleko . zenbakiaren solairuan, duenak, ... telefonoarekin eta ...faxarekin,

##### AITORTZEN DUTE:

- I Ordezkatutako enpresek “*Donostialdean (Gipuzkoa) San Markoko zabortejiaren II. fasea berreskuratu eta ixteko proiektuaren*” barruan Ila azpifaseari dagozkion obren kontratazioan prozedura irekiaren bidez parte hartzeko batera eta solidarioki aurkeztearen konpromisoa onartzen dutela eta esleipendunak izanez gero, izenpean aldi baterako enpresaren elkarte osatuko dutela.
- II Aldi baterako enpresen elkarte osatuko luketen enpresen partaidetza ondoren zehaztutakoa izango litzatekeela:
  - 
  -
- III Kontratazio-organoaren aurrean ordezkatzeko, sinatzen dutenek jaun/andrea, NAN zenbakiarekin, adin nagusikoa, helbidea duena, telefonoarekin eta faxarekin, ABEEen ordezkaritza osoa izateko izendatzen dutela.

.....n, 2013ko .....aren .....an

Sinadurak

**V. ERANSKINA**

**AZPIKONTRATAZIOA AITORTZEKO EREDUA**

..... jaun/andreak,  
 .....n (PK:.....) helbidea duenak,  
 ..... NAN zenbakiarekin, ..... telefono-zenbakiarekin eta  
 ..... e-postarekin, lege-ahalmen eta jarduteko gaitasun osoz,  
 bere izenean edo (.....ri  
 ordezkatzuz ..... (helbidea:

.....;  
 PK:.....; telefonoa:..... eta NAN edo IFK (*pertsona fisiko edo juridikoa izatearen arabera*): .....), “Donostialdean (Gipuzkoa) San Markoko zabortegia Ila fasean berreskuratu eta ixteko proiektuan” obrak kontratatuzeko San Markoko Mankomunitateak iragarritako prozedura irekiaz jakitun izanik eta, honakoa

**AITORTZEN DU:**

Prozedura irekiaren bidez “Donostialdean (Gipuzkoa) San Markoko zabortegia Ila fasean berreskuratu eta ixteko proiektuaren” barruan Ila azpifaseari dagozkion obren kontratazioan parte hartzeko proposamenari dagokionez, hurrengo jarduerak azpikontratatu dituela:

JARDUERA	KONTRATUAREN PREZIOAREN GAINEKO EHUNEKOA (BEZ kanpo)	AZPIKONTRATATUTAKO ENPRESA

(\*) Erantsi azpikontratazioaren konpromisoa edo gutuna eta azpikontratatuak enpresari buruzko kaudimen teknikoaren edota profesionalaren baldintzei dagozkien aipamenak.

.....n, 2013ko .....aren .....an

Sinadura



## VI. ERANSKINA

### LOTURA DUTEN ENPRESEN AITORPEN-EREDUA

..... jaun/andreak, adin nagusikoak, ..... NAN  
zenbakiarekin eta .....n helbidea duenak,  
.....ren izenean (IFZ: .....; helbidea:  
.....; Tel.: .....; faxa:.....; eta posta  
elektronikoaren helbidea: .....), aitortzen du berak ordezkatzeko duen enpresa:

- BAI** dagoela Merkataritza Kodeak 42.1. artikuluan xedatutako ustezkoren batean.
- EZ** dagoela Merkataritza Kodeak 42.1. artikuluan xedatutako ustezkoren batean.

#### Erantzuna baiezkoa izanez gero:

- EZ** du kontratuaren esleipenean parte hartuko, talde berekoak izanik edo Merkataritzaren Kodeko 42.1. artikuluan xedatutako hautazko ustezkoren batean egonda, banan-banako proposamena aurkeztuta.
- BAI** parte hartuko du kontratuaren esleipenean, talde berekoak izanik edo Merkataritzaren Kodeko 42.1. artikuluan xedatutako hautazko ustezkoren batean egonda, banan-banako proposamena aurkeztuta.

IFK:

Sozietatearen izena

.....n, 2013ko .....aren .....an

Sinadura

(\*) Merkataritza Kodearen 42.1. artikulua:

“Sozietate-talde batean sozietate nagusi orok urteko kontuak eta kudeaketa-txosten finkatua aurkeztu beharko ditu sekzio honetan aurrez ikusitako moduan. Sozietate nagusia identifikatu ezin daitekeen taldeetan, eginbehar hori lehenengo finkapen-datan aktibo gehien dituen sozietateak izango du.

Talde bat osatzen da hainbat sozietatek erabakitze-unitate bat osatzen dutenean. Bereziki, erabakitze-unitate bat izango da, sozietate bat, nagusi bezala kalifikatutakoa, beste sozietate baten bazkidea (mendekoa) denean eta horrekin harremanetan honako egoeraren batean dagoenean:

- a) Boto-eskubideen gehiengoa izatea.
- b) Administrazio-organoko kide gehienak izendatu edo kargutik kentzeko ahalmena izatea.
- c) Beste bazkide batzuekin lortutako akordioaren babesean, boto-eskubideen gehiengoa izatea.
- d) Esklusiboki bere botoekin administrazio-organoko kide gehienak izendatzea eta kontuak finkatu behar direnean, baita aurreko bi ekitaldietan ere, beren karguak betetzea. Ustezko honetan ez da finkapenik izango, administrazioaileak izendatu dituen sozietatea beste bati lotuta badago atal honetako lehenengo bi hizkietan aurrez ikusitako kasuren batean.

Xede horietarako, erakunde nagusiaren boto-eskubideei mendeko beste sozietate batzuen bidez dituztenak edo beren izenean jardun arren, erakunde nagusiaren edo beste mendeko batzuen bitartez egiten duten pertsonenak erantsi beharko zaizkie. Halaber, hitzarmenaren bidez beste edozein pertsonarekin dituenak ere gehituko dira”.

## VII. ERANSKINA

### ERREGISTROAN PROPOSAMENA ENTREGATZEKO EREDUA

..... jaun/andreak, ..... NAN zenbakiarekin, bere izenean edo, hala badagokio, ..... enpresaren izenean (IFZ:.....) jardunez, .....n helbidea duenak, ..... telefono zenbakiarekin, ..... faxarekin eta ..... posta elektronikoarekin,

#### AZALTZEN DU:

Gaurko ..... (\*)ak izanik, 3 gutun-azal entregatzen dituela eta “Donostialdean (Gipuzkoa) San Markoko zabortejiaren II. fasea berreskuratu eta ixteko proiektuaren” barruan Ila azpifaseari dagozkon obren kontrataziorako proposamena osatzen dutela.

Donostian, 2013ko .....aren .....an

Aurkezlearen sinadura

(\*) Erregistroko arduradunak osatzeke.